


Leonard Peltierren ihes ukatua



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Lompoc (Kalifornia, AEB), 1979ko uztailearen 20a. Leonard Peltier ekin-tzaile indigenak eta beste bi presok espetxe federaletik ihes egin zuten. Iheskideetako bat kartzelaren kanpoaldean bertan tirokatuta hil zuten; bestea ordu eta erdi geroago atzeman zuten handik milia batera. Peltier, aldiz, hiru egun geroago atxilotu zuten Santa Marian (Kalifornia), nekazari batek zapatak, diruzorroa, autoa eta janaria lapurtu zizkiola salatu ondoren. Beste zazpi urteko zigorra erantsi zieten Peltierrek aurrez zituen bi biziarteko kartzela zigorrei.

Peltier anishinaabe lakota jatorrikoa da eta Amerikako Indiar Mugimenduko militantea zen. Bi kartzela zigorrak 1975ean Pine Ridge erreserban FBIko bi agente hiltzeagatik ezarri zizkioten. Hego Dakotako siouxen lurralde sakratu haietan uranioa eta ikatza aurkitu zituzten hilabete batzuk lehenago. Lehengai horiek ustiatzeko ahaleginean, lakota herriko kideak jazarri zituzten eta 250 indigenatik gora hil zituzten, baina ia 50 urte geroago kasu bat bera ere ez da ikertu. 1975eko ekainaren 27ko tiroketa haren ondoren, ordea, berehala (eta presiopean) bildu zituzten Peltierren aurkako testigantza faltsuak.

Gerora jakin zen FBIk disidentziaren aurkako Cointelpro kontrainteligentzia programa erabili zuela bere aurka. Cointelpro programa "Estatu Batuetako Alderdi Komunistaren jarduna eteteko" sortu zen berez, baina beste talde batzuk ere



Leonard Peltier 1976ko abenduan, Oakalla espetxean (Kanada), AEBetara eramango zuen helikopteroa hartzeko bidean.

jomuga izan zituen: Ku Klux Klan, Langileen Alderdi Sozialista eta Pantera Beltzak, besteak beste. Leonard Peltier eta Pine Ridgeko Indiar Mugimenduko beste kide batzuk ere begiz jota zeuzkaten FBIko bi agenteen hilketa baino lehen.

Peltierren errugabetasuna zalantza izpirik gabe frogatzen duten 10.000 folio baino gehiago daude, baina klasifikatuta jarraitzen dute. Hamarkada hauetan haren askatasuna eskatu duten erakunde eta pertsonen zerrenda luzea da: Amnistia Internazionale, NBE, Europako, Belgikako eta Italiako parlamentuak, Nelson Mandela, Desmond Tutu, Rigoberta Menchu... 1980an Apelazio Epaitegiak aitortu zuen Peltierren aurkako txoste-

nean "FBIko agenteen jarrera desegokiaren frogak" daudela, eta Fiskaltzak ere onartu zuen frogua zuzenik ez zegoela Peltierrek bi agenteen hilketan parte hartu izanaz. Baina baldintzapeko askatasuna aztertzeaz arduratzen den batzordeak Peltierren aldeko eskaerak atzera bota izan ditu beti "hilketengatik erantzukizun kriminala onartzen ez duelako".

Leonard Peltierrek 79 urte ditu eta gaurorik dago. AEBetako preso politikorik zaharrena da, kartzelan denbora gehien daramana: ia 48 urte. Hil honen hasieran, ihes egiten saiatu zenetik 45 urte bete-tear zirela, Peltierren kasua berriro epaitzietara joan da, eta baldintzapeko askatasuna ukatu diote enegarren aldiz. ●

Margolan figuratibo zaharrena

Sulawesi (Indonesia) uhartearen hegoaldean, Leang Karampuang kobazuloan hiru irudi antropomorfoz eta basurde batez osatutako margolana aurkitu dute Griffith eta Southern Cross unibertsitateetako eta Indonesiako Agentzia Nazionaleko arkeologoen. *Nature* aldizkarian argitaratutako ikerlanaren arabera, aurkikuntza

datatzeko metodo berritzailea erabili dute: pigmentuetatik hurbil dauden karbonatoak aztertzen ditu laserraren bidez. Eta emaitza zehatza izan da: artelanak 51.200 urte ditu gutxienez. Horrek esan nahi du ezkerreko irudian dagoen eszena orain arte aurkitutako margolan figuratibo edo narratiborik zaharrena dela. ●

GRIFFITH UNIBERTSITATEA

